

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

EAJren zakarrontzian ere egiazta zitekeen zerbait

Gazte donostiar batek ohitura xelebrea hartu zuen zenbait hilabetez goeko hamarkadaren lehen erdialdean: Gipuzkoa-ko EAJk zaborra botatzen zuen kontaine-rran sartu eta jeltokideek bertan utzitako dokumentuak berreskuratzen zituen.

Txikitutako aktak eta txostenak ziren. Paper zatiak zinta itsasgarriarekin josten zituen etxean, pazientzia amaigabearekin, eta, azkenik, zendu berri den Pepe Rei kazetariari ematen zizkion. Hortik hainbat artikul- lu argitaratu zituen “Egin”-ek.

Garai hartan EAJ errezelok jota zebilen, paper haie- tatik argitaratutako informazioen ondorioz sator bat zuela uste izan baitzuen. Anekdotek alde asko izan ohi dute, eta honek ere halaxe izan zituen. EAJn ezinezona nagusitzen zen bitartean, garai hartan egunkariarekin apur bat erretxinduta zebilen Egin Irratiko komenta- rista politiko batek jeltokideak “Egin” erabiltzen ari zirela zioen, eta argitaratutako informazio haiek alderdi ho- rren estrategek bideratutako filtrazioen ondorio baino ez zirela. Paradoxak betetako garaia izan ziren; gerora “Egin”-eko zuzendaritzak jakin zuenez, EAJ zen egun- karian «satorra» zuena. Espioi nobela merke samar ba- ten antzera, jeltokideei informazio pasatzen ziena Pepe Reiren taldean zegoen.

EAJ, ESTATUAREN ESTRATEGIAREN OSAGAI

Pasadizo kurioso eta zenbaitetan iragarri haiek alde batera utzita, zakarrontzitik berreskuratutako paper haiek garrantzi handiagoko kontuak erakutsi zituzten. Nekaezin eta adoretzu, Pepe Reik bere ikerketarako ba- liagarri izan zitezkeen paperak hartzen zituen, eta iza- era politikoagoa zuten dokumentuak egunkariko Poli- tika sailera pasatzen zituen. Horietan, EAJren harreman politikoak agertzen ziren. Deigarria zen PSOErekin islatzen zen lotura; aktetan Espainiako Go- bernuko ordezkariak emandako azalpenak ere ager- tzen ziren. Antoni Asuncion Barne ministroaren aho- tik jeltokideek jasotako hitzak ziren bereziki adierazgarriak: EAJ ezker independentistaren kontrako estrategian ezinbesteko osagaitzat zuten Madril. Es- trategia horren izaera biolento eta injustua begien bis-

takoa zen. Antoni Asuncion, gainera, kartzela politika- ren arduraduna izan zen ministro izan aurretik.

EAJren zakarrontzitik ateratako paper haiek erreali- tate historiko argi bat azaltzen zuten: jeltokideak ere in- darkerian oinarritutako estrategia baten itzalpean ari- tu zirela. Rafael Verarekin (Estatu Segurtasunari lotua, 1983-1994) eta Jose Luis Corcuerearekin (Barne minis- troa, 1988-1993) izandako konplizitate estu bezain lo- tsagarria izan zen urte askotan horren lekuko.

AHANZURA ETA INPUNITATEA ELIKATZEN

Gaurko egunera ekarrita, egoera hark azken boladan zenbaitek darabilen zinismoa agerian uzten du. Izan- dako jokabideak eta ardurak ahaztuta, hainbatek bes- teei eskatzen diete autokritika aseezina, etorkizuna eraikitze baina gehiago iragana birsortzeko asmoa- rekin. Zehatzago esanda, ezker abertzaleari eskatzen diote soilik. Horretarako inkisidore lanetan aritzen di- renen ahanztura eta inpunitatea elikatzen dute, be- raien jokabideak eta beraien indarkeria bidegabeak eragindako kaltea aitortu eta argitu gabe utziz. Eginda- ko kaltea aitortu duenari ematen zaio egurra, egindako kaltea aitortu eta sendatu gabe utzi nahi duenari inpu- nitatea eskaintzen zaion bitartean.

Bistan da ezker abertzalea eta haren ordezkariak es- trategia politiko-militar baten inguruan jardun zirela. Besteek ere beste horrenbeste egin zuten.

Har dezagun muturreko adibide bat. Inork gutxik jartzen du zalantzan Jesus Egigurenek elkarriketaren eta bakearen alde egindako ahalegina. Halere, bere bio- grafia begiratzeari besterik ez dago jada 80ko hamarka- daren hasieran bere alderdian ardura handiak zituela ikusteko. 1983an sartu zen Eusko Legebiltzarrera. Bes- teak beste, urte horretan Lasa eta Zabala desagerrarazi zituzten Galindoren morroiek, eta Gonzalezen gober- nuak Zen Plana eman zuen ezagutzera. Eguiguren ez al zen kontziente haren denaren eraginpean ari zirela, Jon Idigoras eta Santi Brouard ETaren jardueraren era- ginpean ari ziren bezalaxe? Ez du halakorik onartu ere egin. PSOE ez da Zabaltzaren kasuari begiratu ere egite- ko gai.

Egia, justizia eta erreparazioa. Lekutan gaude. •